# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### 110

270/2004 DEKRETUA, abenduaren 28koa, farmazia-bulegoetan eta -biltegietan gutxienez egon beharreko medikamentuak eta osasun-produktuak ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko ordenazio farmazeutikorako uztailaren 17ko 11/1994 Legearen oinarrizko helburua herritar guztiei arreta farmazeutiko egokia garantizatzea besterik ez da eta, Legeak berak dioenez, arreta hori egokitzat jo daiteke, baldin eta betetzen den premisetako bat medikamentua erraz eta bizkor eskuratzea bada.

Dekretu honen xedea premisa hori bete dadin erraztea da, farmaziako arreta-sareak biztanleriaren premia arruntenei erantzuteko medikamentu eta osasun-produktuak beti izango dituela ziurtatuta. Horretarako, farmazia-bulegoek eta –biltegiek eduki behar dituzten gutxieneko izakinak ezartzen ditu. Eta izaera praktikoarekin, eta biztanleriaren eta lurraldeen egoera ezberdinek eragiten dituzten behar ezberdinak bateratzeko asmoarekin egiten du hori, beharrak ezberdinak izan arren, guztiek baitute berehala jarduteko beharra.

Komeni da esatea eranskineko idazketa medikamentuen sailkapen anatomiko, terapeutiko eta kimikora (ATK) egokitzen dela, medikamentuen sailkapena ATK sistemara egokitzen duen urriaren 31ko 1348/2003 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Ordenazio Farmazeutikorako Legeak azken xedapen bakarreko 2. paragrafoan Eusko Jaurlaritzari lege hori garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak izan daitezkeen arau guztiak emateko baimena ematen dio; eta horren indarrez ematen da dekretu hau.

Horrenbestez, Osasun sailburuak halaxe proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Aholkularitza Batzorde Juridikoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko abenduaren 28an egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako farmazia-bulegoetan eta -biltegietan gu-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 110

DECRETO 270/2004, de 28 de diciembre, por el que se establecen las existencias mínimas de medicamentos y productos sanitarios en las oficinas de farmacia y en los almacenes farmacéuticos.

La Ley 11/1994, de 17 de julio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco proclama como su meta fundamental el garantizar a toda la ciudadanía una adecuada y homogénea atención farmacéutica, añadiendo a continuación que una de las premisas que han de cumplirse para considerar adecuada dicha atención es que el acceso a los medicamentos sea ágil y rápido.

El presente Decreto pretende facilitar el cumplimiento de esta premisa, garantizando que, en todo momento, la red asistencial farmacéutica disponga del conjunto de medicamentos y productos farmacéuticos precisos para atender las necesidades más comunes de la población. Para ello establece las existencias mínimas con que deben contar las oficinas de farmacia y los almacenes farmacéuticos. Y lo hace con un carácter práctico e integrador de las distintas necesidades que surgen de situaciones poblacionales y territoriales que también son distintas, pero que tienen en común la necesidad de una actuación inmediata.

Conviene señalar que la redacción del anexo se ajusta a la clasificación anatómica, terapéutica y química (ATC) de medicamentos, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 1348/2003, de 31 de octubre, por el que se adapta la clasificación anatómica de medicamentos al sistema de clasificación ATC.

Este Decreto se dicta en virtud de la autorización conferida al Gobierno Vasco por el apartado 2 de la Disposición Final única de la propia Ley de Ordenación Farmacéutica, para dictar cuantas normas sean precisas para su desarrollo y aplicación.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Consejero de Sanidad, conforme la Comisión Jurídica Asesora, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de diciembre de 2004,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Mediante el presente Decreto se establecen las existencias mínimas de medicamentos y productos sanita-

txienez egon beharreko medikamentuak eta osasun-produktuak ezartzen dira.

*2. artikulua.–* Farmazia-bulegoetan gutxienez egon beharrekoak.

Farmazia-bulegoek beti eduki behar dituzte dekretu honetako eranskinean azaltzen diren medikamentuei eta osasun-produktuei dagozkien gutxieneko izakinak, horretarako, emandako, iraungitako edo hondatutako izakinak berrezartzeko sistema egokia antolatuz.

*3. artikulua.–* Farmazia-biltegietan gutxienez egon beharrekoak.

Farmazia-biltegiek, 2259/1994 Errege Dekretuaren 16. artikuluan aurreikusitako eraginetarako, beti eduki behar dituzte dekretu honetako eranskinean azaltzen diren medikamentu eta osasun-produktuak, eskuarki hornitzen dituzten establezimendu banatzaileetako beharrak betetzeko adinako kopuruan.

*4. artikulua.–* Gutxieneko izakinak berrezartzea.

Behar bezala justifikatutako gorabeherak direla eta, farmazia-bulegoek eta –biltegiek dekretu honen arabera gutxienez eduki beharreko izakinak ez baldin badauzkate, 24 orduko epea pasa baino lehen berrezarri beharko dituzte.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen Dekretuaren bigarren aldaketa.

Farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluko 4. idatz-zatia honela idatzita egongo da aurrerantzean:

> «4.– Jardunean jartzeko baimenaren berri jaso ondorengo 10 egunen barruan zabaldu beharko du interesdunak bulegoa. Jendearentzako zabaltze egunean,behar hainbateko baliabide tekniko eta materialez hornituta egon beharko du farmazia berriak. Halaber, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen gutxieneko medikamentuak eta osasun-produktuak eduki beharko ditu.
>
> Osasun Administrazioari eta dagokion Botikarien Kolegio Ofizialari zabaltzearen berri emango beharko die interesdunak, ekintza hori burutu baino lehen.»

***Bigarrena.–*** Arau bidezko garapena.

Dekretu honen eranskina bost urtero berrikusi beharko da, gutxienez, Osasun sailburuaren Aginduaren

rios de las que deben disponer las oficinas de farmacia y los almacenes farmacéuticos radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 2.–* Existencias mínimas en las oficinas de farmacia.

Las oficinas de farmacia deben disponer, en todo momento, del número mínimo de envases de los medicamentos y de los productos sanitarios que se relacionan en el anexo de este Decreto, organizando, a tal efecto, un adecuado sistema de reposición de los envases dispensados, caducados o deteriorados.

*Artículo 3.–* Existencias mínimas en los almacenes farmacéuticos.

Los almacenes farmacéuticos, a los efectos previstos en el artículo 16 del Real Decreto 2259/1994, deben disponer, en todo momento, de los medicamentos y los productos sanitarios que se relacionan en el anexo de este Decreto, en número de envases que resulte suficiente para atender las necesidades de los establecimientos dispensadores a los que suministren de un modo habitual.

*Artículo 4.–* Reposición de existencias mínimas.

En caso de que por razones coyunturales, debidamente justificadas, las oficinas de farmacia y los almacenes farmacéuticos no dispongan de las existencias mínimas a que se refiere el presente Decreto, se procederá a su reposición en un plazo inferior a 24 horas.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** Segunda modificación del Decreto por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia.

El apartado 4 del artículo 7 del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, queda redactado como sigue:

> «4.– La apertura al público de la oficina de farmacia se efectuará por el interesado dentro de los 10 días siguientes a la notificación de la autorización de funcionamiento. El día de la apertura al público deberá contar con dotación suficiente de medios técnicos y materiales. Así mismo, deberá disponer de las existencias mínimas de medicamentos y productos sanitarios que establezca la normativa vigente.
>
> La fecha de apertura al público deberá ser comunicada por el interesado a la Administración Sanitaria y al correspondiente Colegio Oficial de Farmacéuticos con antelación a su materialización.»

***Segunda.–*** Desarrollo normativo.

El anexo del presente Decreto deberá revisarse, al menos, cada cinco años, mediante Orden del Conseje-

bitartez, interes teraupeutikoa dutelako edo garrantzi berezia dutelako egokiak diren merkatu-berrikuntzetara egokitzeko.

*Hirugarrena.–* Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko abenduaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

ro de Sanidad, para adaptarlo a las novedades del mercado que resulten adecuadas por su interés terapéutico o especial relevancia.

*Tercera.–* Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor a los tres meses de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRÍBAR.

Abenduaren 28ko 270/2004 DEKRETUAREN ERANSKINA
*ANEXO AL DECRETO 270/2004, de 28 de diciembre.*

| ATK sailkapena<br>*Clasificación ATC* | Osagai aktiboa<br>*Principio activo* | Mota farmazeutikoa<br>*Forma farmaceútica* | Zenbat ontzi<br>*Número de envases* |
|---|---|---|---|
| A02AD03 | Almagato | sobreak edo pilulak<br>*sobres o comp.* | 4 |
| A02BC01 | Omeprazol | kapsulak/*cápsulas* | 2 |
| A03BA01 | Atropina | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| A03BB01 | Butileskopolamina/*Butilescopolamina* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| A03BB01 | Butileskopolamina/*Butilescopolamina* | grageak/*grageas* | 1 |
| A03FA01 | Metoklopramida/*Metoclopramida* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| A03FA01 | Metoklopramida/*Metoclopramida* | disoluzioa/*solución* | 2 |
| A06AG01 | Sodio fosfato mono eta dibasikoa<br>*Sodio fosfato mono y dibásico* | enema | 2 |
| A07CA | Errehidratazioko disoluzioa<br>*Solución de rehidratación* | disoluzioa edo sobreak/*solución o sobres* | 6 |
| A07DA03 | Loperamida | kapsulak/*cápsulas* | 2 |
| A10AB | Insulina azkarra<br>*Insulina rápida* | anpuluak edo kartutxoa<br>*ampollas o cartucho* | 1 |
| A10AC | Bitarteko insulina / *Insulina intermedia* | anpuluak edo kartutxoa<br>*ampollas o cartucho* | 1 |
| B01AA07 | Acenocumarol 4 mg | pilulak/*comprimidos* | 4 |
| B01AB01 | Heparina frakzionatua<br>*Heparina fraccionada* | anpuluak edo bialak / *ampollas o viales* | 2 |
| B01AC06 | Azido azetilsalizilikoa<br>Ácido acetil salicílico 100 mg | pilulak/*comprimidos* | 2 |
| B02AA01 | Azido tranexamiko edo aminokaproikoa<br>*Ácido tranexámico ó aminocaproico* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| B02BA01 | Fitomenadiona 10 mg | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| B05BB01 | Serum isotonikoa / *Suero isotónico 0,9 % 500 mL* | disoluzio injektagarria / *solución inyectable* | 2 |
| C01AA05 | Digoxina | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| C01AA05 | Digoxina | pilulak/*comprimidos* | 3 |
| C01BD01 | Amiodarona | pilulak/*comprimidos* | 1 |
| C01CA24 | Adrenalina | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| C01DA02 | Nitroglizerina/*Nitroglicerina* | grageak/*grageas* | 2 |
| C01DA02 | Nitroglizerina/*Nitroglicerina* | aerosola/*aerosol* | 2 |
| C03CA01 | Furosemida | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| C03CA01 | Furosemida | pilulak/*comprimidos* | 3 |
| C09AA01 | Captoprilo | pilulak/*comprimidos* | 2 |

| ATK sailkapena<br>*Clasificación ATC* | Osagai aktiboa<br>*Principio activo* | Mota farmazeutikoa<br>*Forma farmaceútica* | Zenbat ontzi<br>*Número de envases* |
|---|---|---|---|
| D08AC02 | Clorhexidina | disoluzioa/*solución* | 2 |
| D08AG02 | Pobidona iodatua<br>*Povidona iodada* | disoluzioa/*solución* | 2 |
| D09A | Tul koipetsuko konpresak<br>*Compresas de tul graso* | apposituak/*apósitos* | 2 |
| G02AB01 | Metilergometrina | tantoak/*gotas* | 1 |
| H02AB02 | Dexametasona 1 mg | pilulak/*comprimidos* | 1 |
| H02AB02 | Dexametasona 4 mg | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| H02AB04 | Metilprednisolona | anpuluak/*ampollas* | 3 |
| H04AA01 | Glukagoia/*Glucagón* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| J01CA04 | Amoxizilina/*Amoxicilina* | kapsulak, pilulak edo suspentsioa<br>*cápsulas, comp. o suspens.* | 4 |
| J01CE08 | Benzilpenizilina-benzatina<br>*Bencilpenicilina-benzatina 1200000* | biala/*vial* | 2 |
| J01CR02 | Amoxizilina + azido klabulanikoa<br>*Amoxicilina + ácido clavulánico* | kapsulak edo disoluzioa<br>*cápsulas o solución* | 6 |
| J01FA01 | Eritromizina/*Eritromicina* | pilulak edo suspentsioa<br>*comprimidos o suspensión* | 2 |
| J06AA02 | Inmunoglobulina antitetánica<br>*Inmunoglobulina antitetanikoa* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| M01AB05 | Diklofenakoa/*Diclofenaco 50 mg* | pilulak/*comprimidos* | 6 |
| M01AB05 | Diklofenakoa / *Diclofenaco 75 mg* | anpuluak/*ampollas* | 2 |
| M01AE01 | Ibuprofenoa/*Ibuprofeno* | sobreak edo pilulak / *sobres o comprimidos* | 8 |
| M01AE01 | Ibuprofenoa/*Ibuprofeno* | suspentsioa/*suspensión* | 4 |
| N01BB03 | Mepibakaina % 1 / Mepivacaína 1 % | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N02AA01 | 10 anpuluko % 1 morfina<br>*Morfina 1 % de 10 ampollas* | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N02AA01 | Morfina 30 mg | pilulak/*comprimidos* | 1 |
| N02AB03 | Fentanilo | enplastuak/*parches* | 1 |
| N02BA01 | Azido azetilsalizilikoa<br>*Ácido acetilsalicílico 500 mg* | pilulak/*comprimidos* | 20 |
| N02BB02 | Metamizol | anpuluak/*ampollas* | 4 |
| N02BB02 | Metamizol 575 mg | kapsulak edo pilulak<br>*cápsulas o comprimidos* | 4<br>20 |
| N02BE01 | Paracetamol | kapsulak edo pilulak<br>*cápsulas o comprimidos* | |
| N02BE01 | Paracetamol | tantoak/*gotas* | 4 |
| N03AA02 | Fenobarbital | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N05AA01 | Clorpromazina | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N05AD01 | Haloperidol | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N05AL01 | Sulpirida | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| N05BA01 | Diazepam | pilulak/*comprimidos* | 2 |
| N05BA01 | Diazepam | anpuluak/*ampollas* | 2 |
| N05BA01 | Diazepam | enema | 1 |
| N05BA06 | Lorazepam 1 mg | pilulak/*comprimidos* | 4 |
| N05BA12 | Alprazolam 2 mg | pilulak/*comprimidos* | 2 |
| N07AA01 | Neostigmina | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| R03AC02 | Salbutamol 100 mcg/ inhalazioa/*inhalación* | inhalagailua/*inhalador* | 4 |
| R03BA02 | Budesonida 200 mcg/inhalazioa/*inhalación* | inhalagailua/*inhalador* | 3 |
| R05DA04 | Kodeina/*Codeina* | pilulak/*comprimidos* | 1 |
| R06AB02<br>S01AA11 | Dexclorfeniramina<br>Gentamizina/*Gentamicina* | anpuluak/*ampollas*<br>kolirioa edo pomada oftalmikoa<br>*colirio o pomada oftálmica* | 1<br>2 |
| S01AD03 | Aciclovir | pda.oftalmikoa / *pda.oftálmica* | 2 |
| S01BA01 | Dexametasona | kolirioa edo pomada oftalmikoa<br>*colirio o pomada oftálmica* | 2 |

| ATK sailkapena<br>*Clasificación ATC* | Osagai aktiboa<br>*Principio activo* | Mota farmazeutikoa<br>*Forma farmaceútica* | Zenbat ontzi<br>*Número de envases* |
|---|---|---|---|
| S01ED01 | Timolol | kolirioa/*colirio* | 2 |
| S01FA01 | Atropina | kolirioa/*colirio* | 1 |
| S01HA03 | Tetrakaina + Oxibuprokaina<br>*Tetracaína + Oxibuprocaina* | kolirioa/*colirio* | 1 |
| V03AB15 | Naloxona | anpuluak/*ampollas* | 1 |
| V06DC01 | Glukosa-disoluzio hipertonikoa<br>Sol. glucosa hipertónica 50 % IV | flaskoa/*frasco 500 ml* | 1 |

| Izena/*Denominación* | Kopurua/*Cantidad* |
|---|---|
| Erabili eta botatzeko insulina-xiringa orratzaduna<br>*Jeringa desechable de insulina con aguja* | 6 |
| 5 x 2,5 cm-ko esparatrapu hipoalergenikoa<br>*Esparadrapo hipoalergénico 5 x 2,5 cm* | 4 |
| 100 unitateko gaza esterileko konpresak<br>*Compresas de gasa estéril de 100 unidades* | 4 |
| Gernua jasotzeko helduentzako flaskoa<br>*Frasco de recogida de orina adultos* | 4 |
| Gernua jasotzeko haurrentzako poltsa<br>*Bolsa de recogida de orina niños* | *2* |
| Foley zunda 16, 18<br>*Sondas Foley 16, 18* | 1 bakoitzetik<br>*1/cada* |
| Bisturi orratzaduna / *Bisturí con hoja* | 1 |
| Haurrentzako inhalazio-kamara<br>*Cámara de inhalación infantil* | 1 |